

LEZO

Kirol instalakuntza berriak

Kirol azpiegituren arloan aurrerapen izugarria izan du Lezoko herriak azken urteotan

Kiroldegi baten beharra asetzeko, Bekoerota kiroldegia zabaldu zuten 1998ko azaroan. Ondoren, 2000. urteko maiatzaren 6an, Plazeta futbol zelaia inauguratu zuten. Futbol zelai horrekin, Altzateko kaskoan zegoen futbol zelai zaharkitua alde batera utzi ahal izan zen, eta belar artifizialeko zelai berri bat izatera pasatu.

Kirol instalakuntzen hobekuntzarekin jarraituz, Alzate igerilekuak inauguratu ziren aurtengo urriaren 6an. Bistan denez, azken urte hauetan kirol azpiegiturak erabat aldatu dira lezoarantz. Hala, futbol zelai kaxkar bat izatetik, kirol instalakuntzetan aurrerapen izugarria izatera pasatu da Lezo azken urte hauetan.

Igerileku handi bat eta beste bi txiki

Urrian irekitako igerilekuek dezenteko atzerapena izan dute. Hasiera batean, udako igerileku estali gabe bat egiteko proiektua zegoen mahai gainean. Igerileku horri atarramentu gutxi aterako zitzaiola eta, proiektua aldatu eta estalki mugikor bat ezartzea erabaki zuten, iragan urteko otsaileko ohiko udal batzarrean.



GARI GARAIALDE

■ Igerilekuen inaugurazioa urrian izan zen.

Idea berri horrek udaleko aurrekontuetan igoera nabarmena ekarri zuen, atzerapenaz gain. Azkenean, guztira, 1.300 milioi pezetako inbertsioa eskatu du igerileku berriak.

Diru kopuru horretatik, Lezoko Udalak 1.000 milioi pezeta jarri ditu.

Igerileku handia 25 x 12 metrokoa da. Horrez gain, beste bi igerileku txiki ere badira. Era

berean, igerilekuen inguruan zelaiak daude eguzkia hartzeko, eta ondoan, Alzateko Auzo Elkartearen egoitza dena igerilekuko taberna ere izango da.

Kudeaketa berria

Udalak esleipen publikoa egin ondoren, Lezoko kirol instalakuntzen kudeaketa Galizia-ko Serviocio S.A. enpresak eramango du aurrerantzean. Servicioren eta Udalaren arteko hitzarmena urtebetekoa da, oraingoz.

Serviociok igerilekuen kudeaketan dihardu. Espainiako 14 igerilekuren ardura du. Serviociok, ohiko ekitaldiez gain, berri-tzaileagoak ekarri nahi ditu Alzateko igerilekura, hala nola, matronatazioa, igeriketa terapeutikoa edo jaioberrientzako igeriketa.

Serviocioko ardura-dunen beste kezka euskaldun giroa nagusitzea izango da. Kontratazioak egiteko garaian, bi lehentasun izan dituzte: langileak herrikoak eta euskaldunak izatea.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Lezo Unibertsitateko Udala

URTAROAK URTERO, BAINA EUSKARAZ EGUNERO

FAMIPAN
POLIGONO DE LEZO

**Ogi eta
boiloetan
espezialitatea**

**Zorionak
lezotar guztiei**

Jaizkibel hirib. 23 LEZO

Urune pol. 110-23 lokala C

Tel. 943.51.50.75 LEZO

LEZO
Herri EskolaEuskalerria plaza z/g
Tel.: 943 51 48 04
Faxa: 943 34 43 21

2 urtetik 16 urte bitarteko heziketa

Tomas Garbizu, 24
Tel.: 943 51 12 08
Faxa: 943 52 30 00